

**AKTA,
ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
BERRIKUNTZARAKO EUSKAL
KONTSEILUARENA**

LEHENDAKARITZA, 2018KO ABENDUAREN 11

BERTARATU DIRENAK:

Iñigo Urkullu jauna

LEHENDAKARIA

Arantxa Tapia andrea

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURAKO SAILBURUA

Iñaki Arriola jauna

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZAKO SAILBURUA

Cristina Uriarte andrea

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Jon Darpon jauna

OSASUNEKO SAILBURUA

Markel Olano jauna

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

Ramiro Gonzalez jauna

ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

Nekane Balluerka andrea

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

Carlos Garcia jauna (Bixente Atxa jaunaren ordezt)

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO GOI ESKOLA POLITEKNIKOKO ZUZENDARIA

Rosa Santibañez andrea (Jose M^a Gibert jaunaren ordezt)

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO IKERKETA ERREKTOREORDEA

Fernando Cossío jauna

IKERBASQUE-KO PRESIDENTEA

Manuel Salaverria jauna

INNOBASQUE-KO PRESIDENTEA

Iñaki Garmendia jauna (Emiliano Lopez Atxurra jaunaren ordezt)

TECNALIAKO LEHENDAKARIODETZA

Jesús M^a Iriondo jauna (Antxon López Usoz jaunaren ordezt)

IK4-KO LEHENDAKARIODETZA

Iñigo Ucin jauna

MONDRAGON KORPORAZIOAREN PRESIDENTEA

Francisco Riberas jauna

GESTAMP-EKO PRESIDENTEA

Jesús Peña jauna

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA

0. Ongietorria eta hasierako agurra.

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ditu, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren 2018ko bigarren bilerarako ongietorria eman die.

1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak iragan 2018ko ekainaren 26an egindako azken bileraren akta onetsi da.

2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

Lehendakariak bileraren edukia azaldu du, oro har:

"Lau urte igaro dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana (ZTBP) - Euskadi 2020 delakoa 2014ko abenduan onetsi zenetik. Ordutik hona, plana ezartzeko, hedatzeko eta dinamizatzeko lehenengo hiru faseak garatu dira. Plana amaitu aurreko azken faseari ekin baino lehen, kontseilu hau elkartu dugu, bai 2018an garatutako jardueren laburpena egiteko, bai egoeraren gaineko balantzearen eta lortutako emaitza nagusien berri emateko.

ZTBParen tresnak eta programak, kontseilu honek onetsitako neurri gehigarriekin batera, beren uzta ematen ari dira enpresaren, teknologiaren eta zientziaren alorretan. Euskadik berrikuntza handiko eskualde eta herrialdeen artean egoten jarraitzen du, eta ikerketan eta garapenean egiten diren inbertsio publiko-pribatuen hazkuntzan joera-aldaketa gertatu dela baieztatu daiteke. Aurrerapen horiek positiboak izan arren, eskualde eta herrialde aitzindariekin lerrokatzeko xedeari heltzen diogu oraindik ere; beraz, autokonplazentziatzeko egoeran egotea saihestu behar dugu, bai eta I+Gko, talentu-sustapeneko eta berrikuntzako inbertsio-arloan ahaleginak areagotu behar ere (batez ere, ETE-ei dagokienean).

Ondoren, bileraren gai-zerrenda aurkeztu du. Jakinarazi duenez, azken atalaren ondoren, eta amaierako ondorioak egin baino lehen, galdera eta eskarien txanda egongo da.

Hasierako azalpen horren ostean, Lehendakariak Jesús Peñari eman dio hitza, ZTBPa hedatzeko 3. fasearen ezarpen-prozesuaren laburpena azaldu eta Plana betearazteko prozesuaren gaineko balantzearen berri eman dezan.

3. 2014-2018ko ZTBPa hedatzeko 3. fasearen laburpena eta Plana betearazteko prozesuaren gaineko balantzea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako ordezkari Jesús Peñak RIS3 Euskadi estrategia ezartzeko faseak gogoratu ditu: 2014. urtea: 0 fasea Onespena. 2015. urtea: 1. fasea Ezarpena. 2016. urtea: 2. fasea Hedapena, eta 2017. eta 2018. urteak: 3. fasea Dinamizazioa.

Gaur egungo dinamizazio-fasea garatzeko xehetasunen berri eman du, bai eta kontseiluak 2017ko ekainaren 28ko bileran ezarritako 6 erronka osagarrien xehetasunen berri eman ere. Bada, honako hauek dira erronka osagarri horiek: 1) Pilotaje-taldeak dinamizatzea; 2) Elkarlaneko proiektu gidariak bultzatzea; 3) Merkaturako hurbiltasuna indartzea; 4) Bikaintasuneko oinarrizko ikerketa sustatzea

RIS3 arloetan; 5) Zientzia- eta teknologia-arloko talentua eta bokazioak sustatzea eta 6) Berrikuntzaren aldeko gizarte- eta enpresa-sentsibilizazioa areagotzea.

Ondoren, egindako bidearen ondorio nagusiak laburbildu ditu: 1) Euskadik Europako "berrikuntza handiko" eskualde eta herrialdeen artean egoten jarraitzen du; 2) RIS3 Euskadi estrategia guztiz hedatu da; 3) Aurrekontu orokorra % 90 baino gehiago betearazi da; 4) Sistema efizienteagoa da, emaitzei dagokienez; 5) Europako funtsen itzulera-tasa positiboa izan da, "akidura-sintomak" dituen arren; 6) Areagotu egin da I+Gn egindako inbertsioa, baina Europar Batasunaren batez bestekoaren azpitik dago oraindik ere; 7) Enpresek I+Gn egiten duten inbertsioa ez da krisitik suspertu, baina joera aldatzen ari da, eta espektatibak positiboak dira eta 8) ETE-en berrikuntza-arloan ahulgunea dago; batez ere, berrikuntza ez-teknologikoan, antolaketan, merkaturatzean eta I+Gz bestelako berrikuntza teknologikoan.

Azkenik, Jesús Peñak balantze positiboa egin die 2014-2017ko aldian ZTBParen eremuan lortutako emaitzei: 36.000 milioi euro fakturatu dira enpresen produktu berrietan; 441 milioi euro jaso dira Europako H2020 esparru-programatik; 22.490 argitalpen zientifiko indexatu egin dira (% 55, Q1en); Europako 808 EPO patente eskatu dira; 2.400 pertsonak lortu dute doktore-titulua, eta 18.577 pertsona dabilta I+Gn lanean (denbora osoko 12.608 ikertzaile daude).

4.- RIS3 pilotaje-taldeen aurrerapen nagusiak.

Arantxa Tapia: Energia, fabrikazio aurreratua, elikadura.

Hitza hartu du Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuak, Arantxa Tapiak, eta energiako, fabrikazio aurreratuko eta elikadurako pilotaje-taldeen aurrerapausoak aurkeztu ditu.

Aurretik, Zientzia Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko enpresei eta eragileei laguntzeko programen 2018ko deialdietan onartu diren I+Gko proiektu estrategikoak laburtu ditu. 39 milioi euroko diru-laguntza Hazitek programa estrategikoan, 181 milioi euroko guztizko aurrekonturako, eta 36 milioi euroko diru-laguntza Elkartek programan (horietatik, 29 milioi inguru esleitu ziren elkarlaneko oinarritzko ikerketen izaera estrategikodun proiektuetarako).

A) Energia.

Sailburuak jakinarazi duenez, pilotaje-taldera sartu dira Idom, Iberdrola, Petronor, Sener eta Siemens Gamesa, merkatuaren gainean duten ikuspegia eta eragiteko duten gaitasuna eransteko horri.

Jarraian, 2018an ekimen estrategikoetan egin diren aurrerapenak azaldu ditu: A) Harsh-Lab: uztailaren 20an, ur gaineko laborategia abiarazi zen, eta Tecnalia arduratuko da bertan jarduteaz eta laborategia ustiatzeaz, entsegu-zerbitzuen bidez; B) Windbox: lau entsegu-bankuak jardunean daude, eta horien zerbitzuak lizitzatzeko baldintza-orria prestatzen ari dira, eta C) Smart Grids: otsailaren 9an, Iberdrolak, Energiaren Euskal Erakundeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak BIDELEK 4.0 (sare elektrikoa guztiz digitalizatzeko proiektua) martxan jartzea erabaki zuten.

Gero, bi ekimen estrategiko berri abiarazi direla adierazi du: Batetik, EIC (Energy Intelligence Center) ekimena dago. Bertan, 23 milioi euroko inbertsioa egin da, eta Bizkaiko Foru Aldundia da buru, Eusko Jaurlaritzarekin batera. Bestetik, MUBIL Gipuzkoako Elektromugikortasun Zentroa dago. Bertan, 19,3 milioi euroko inbertsioa egin da, eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala dira buru, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin baita ere, Energiaren Euskal Erakundearen bidez.

Sailburuak aurreratu duenez, Energibasque teknologia- eta enpresa-garapenerako estrategiaren tarteko berrikuspen-prozesua hasi da, eta, horren barruan, "Euskal Autonomia Erkidegoko energia-klusterraren 2017ko egoera" dokumentuaren edizio berria egingo da.

Amaitzeko, nazioartean kokatzeko asmoz Vanguard sarearen esparruan egin diren jarduerak nabarmendu ditu; bereziki, Bilbon azaroaren 27an eta 28an egindako biltzarra aipatu du. Izan ere, Europako Batzordearen S3 plataforma elkartu zen bertan, eta Europako 61 eskualdetako 250 lagunek baino gehiagok hartu zuten parte.

B) Fabrikazio aurreratua.

2018ko aurrerapenen balorazio orokorra eginez hasi da sailburua. Aurten pilotaje-taldeak honako hauek lortu dituela adierazi du: 1) Fabrikazio Aurreratuko Estrategia bultzatzeko tresna gisa sendotu da; 2) Programa instituzionalekin lerrokatutako hiru lan-ildo nagusitan jarduketak proposatu ditu; 3) Lankidetzak publiko-pribaturako foroak izan da, non sektore pribatuaren inplikazio aktiboa nabarmendu da, eta 4) Bestelako agenteen parte-hartze handia izan du, bai ekintzak diseinatzeko orduan, bai ekintza horiek betearazteko orduan.

Ondoren, lehentasunezko ildoetan nolako bilakaera egin den azaldu du, eta mugarri hauetara iritsi direla adierazi: A) Europako Batzordeak Basque Digital Innovation Hub (BDIH) delakoaren katalogoa homologatu du. Oraintxe bertan, bi nodo tematiko aktibo daude, hiru egoera aurreratuan daude, eta beste bat diseinu-fasean dago; B) Enplegurako Prestakuntza Planaren 4.0 Teknologien Mapa eguneratu da, eta Prestakuntza Katalogoa nahiz Teknologien Inpaktuaren Mapa garatu dira; C) Adituekin eta enpresekin erkatu da negozio-eredu berrien ikuspegia burutu da, eta D) Made by Europe – Fabrikaziorako KIC EIT berriaren zati da Euskadi, eta, gainera, Horizon Europe ekimenaren hurrengo esparru-programan kokatzeko beste jarduera batzuk garatu dira.

Amaitzeko, 2019rako identifikatu diren erronka berriak azaldu ditu sailburuak: A) BDIHaren eskaria aktibatzea, nodo berriak abiatuz eta adimen artifizialean kokatuz; B) 4.0 Enplegurako Prestakuntza Planaren enpresa-eskaria erkatzea eta prestakuntzarako nahiz talenturako ekintzak abiaraztea; C) Negozio-eredu berriak berrikuntza disruptiborantz bideratzea, elkarlaneko dinamiken bidez, eta D) Nazioartean kokatzea, prospektibazko jarduerak garatuz eta European mezu bateratua zabalduz.

C) Elikadura.

Elikadura euskal ekonomiarako sektore estrategikoa dela azpimarratuz hasi da sailburua (barne-produktu gordinaren % 10,6 da, eta zuzeneko 96.500 enplegu sortzen ditu). RIS3n, elikaduraren eremuan ekiteko aukera- eta aurkikuntza-lurraldetzat hartzen da Euskadi. Horretarako, ikerketarako eta berrikuntzarako lehentasunezko sei ildo ezarri dira: 1) Elikadura osasungarria – dieta pertsonalizatua; 2) Elikagaiak ekoizteko sistema berriak; 3) Garapen gastronomiko berriak biztanleria sentikorrentzat; 4) Elikadura seguru eta kalitatezkoa – Kontserbazio-teknologia berriak; 5) IKTak ekoizpen-prozesuetan, prozesu logistikoetan eta merkataritza-prozesuetan eta 6) Prestazio berriak dauzkaten elikagaiak.

Gero, "Elikagai osasungarrien ekosistema" hedatzeko strategiaren berri eman du, eta horretarako ikerketa- eta berrikuntza-proiektuak identifikatu eta lehenetsi direla azaldu. Hala nola, hauek dira proiektu horietako batzuk: A) Vending elikagai osasungarriekin: askotariko aukera-agertokiak identifikatu dira, eta hezkuntza- eta osasun-sektoreak inplikatu; B) Obesitatea eta 2 motako diabetesa prebenitzeko dieta pertsonalizatua: haurdunaldiko diabetesa goiz antzemateko test

genetiko bat garatu da, eta C) Dieta pertsonalizatua minbizia dutenentzat: bularreko minbizia duten eta kimioterapia-tratamenduan dauden pazienteentzako entsegu kliniko eta zenbait elikagai-prototipo garatu dira.

Amaitzeko, elikadura-eremuaren eta fabrikazio aurreratuaren nahiz osasunaren eremuen arteko lankidetzaren berri eman du sailburuak. Bada, lankidetzaren horretan, 4.0 fabrikazioari loturiko hainbat aukera-agertoki identifikatu dira, eta elikagaien ekoizpen-katearen efizientzia, kalitatea eta trazabilitatea hobetu dira, hainbat teknologiaren bidez; hala nola, Internet of Things, Big Data edo adimen artifiziala.

D) ZTBESaren berrantolaketa

Arantxa Tapia sailburuak, bere hitzartzea bukatzeko, laster Euskadiko Teknologia Partzuergoa eratuko dela aipatu du, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea berrantolatzeko prozesuan lortu diren aurrerapenak azaldu ditu. Bereziki, zentro teknologikoen eta ikerketa kooperatiboko zentroen efizientzia hobetu dela aipatu du; izan ere, 2014aren eta 2017aren artean, diru-sarrerak % 13 hazi dira, baina gehiago hazi dira emaitza zientifiko-teknologikoak eta transferentziari dagozkionak: +% 45 argitalpen zientifikoek, +% 58 nazioarteko patente-eskaerek, +% 96 lizentziengatik eta patenteengatik diru-sarrerek eta abar.

Jon Darpon: Bio-Osasuna.

2018an biozientzien eta osasunaren eremua hazi dela nabarmenduz hasi du Jon Darponek bere hitzartzea. Adibide gisara, Larrabetzun eta Miramonen Histocell-en eta Viralgen-en ekoizpen-instalazioak ireki direla esan du, eta Zamudion Novaltiaren logistika-biltegi robotizatua eraikitzen hasi direla.

Mondragon Unibertsitatea pilotaje-taldera sartu dela jakinarazi ondoren, 2018an garatutako honako ekintza hauek azpimarratu ditu sailburuak: Negozio-ereduen gainean lan egiteko eta Big Data medikuntza pertsonalizatuko talde batean txertatzeko lantalde bat sortu da. Ekintza-planak eta 100dik gora lankidetzaren proiektu garatu dira osasun-sistemaren eta beste eragile eta enpresa batzuen artean. Osasun-arloko I+Gko azpiegiturak eta gaitasunak indartu dira. Nazioartekotzeko eta sozializatzeko jarduerak garatu dira.

Ondoren, euskal enpresek sortutako medikuntza-gailuak eta -teknologiak erakustea eta baliozkotzea sustatzeko Medtech ekimen pilotua nola abiatu den azaldu du sailburuak. 2018an, 59 proiektu garatu dira, eta, halaber, aukera berriak esploratzeko eta identifikatzeko nahiz lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez proiektu berriak sortzeko topaketak sustatu dira.

Jarraian, Gipuzkoako Foru Aldundia ADINBERRI estrategiaren bidez zahartze aktibo eta osasuntsuan berritzeko ekimen europarrera (EIP-AHA) sartu dela nabarmendu du, eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbon Nagusi Intelligent Center ezarri duela azpimarratu.

Azpiegiturei dagokienez, Miñanon Basque Pharma Labs 4.0 laborategia inauguratu dela eta BioGurutzetan Bizkaian neuroerrehabilitaziorako proba-erakin eta -laborategi berria atondu dela aipatu du. Era berean, osasun-sistema publikoaren I+G erakundeak berrantolatzen hasi direla azaldu du. Bada, osasun-arloko ikerketa-institutu eta -zentro guztiak koordinazio-egitura berean biltzea da

xedea, gaitasun sanitarioak indartze, lankidetzeta publiko-pribatuari bide egite eta sektoreko I+G proiektuetan inbertsio pribatu handiagoa egote aldera.

Azkenik, azken hilabeteetan nazioartean kokatzeko egin diren jarduera batzuk aipatu ditu sailburuak; besteak beste, euskal ordezkari handia egon da Dusseldorf-eko Medikuntzako Nazioarteko Azokan (2018); Bilbon Innovation Foruma egin da, edo bio-industrien urteroko topaketa egin da Akitaniarekiko euroeskualdearen esparruan.

Iñaki Arriola: Ekosistemak eta hiri-habitata.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak ekosistemen eta hiri-habitataren pilotaje-taldeen aurrerabideak aurkeztu ditu.

A) Ekosistemak.

2018an ekosistemen eremuan egin diren jarduerak azaldu ditu sailburuak, zeinak ekonomia zirkularra bultzatzeko eta lurralde jasangarria kontserbatzeko eta lehengoratzeko bi ildo nagusien ingurukoak izan diren. Halaber, energia-klusterra, MCC taldea eta Vitoria-Gasteizko Udalaren Ingurumen Ikerketa Zentroa ekosistemen pilotaje-taldera sartu direla azaldu du.

Gero, 2018an I+G+b-ari laguntzeko programetara bideratutako funtsen guztizko bolumena 2,2 milioi eurokoa izan dela jakinarazi du, eta 61 proiekturen garapenari lagundu zaiola horrekin.

Ekonomia zirkularraren eremuan, 41 proiektu abiatu dira 7 gai giltzarritan. Lurraldea lehengoratzeko eremuan, 20 proiektu abiatu dira Klimatek eta Berringurumena deialdietan.

Ondoren, Circular Innovation Factory ekimen estrategikoa lau ardatz hauen inguruan abiarazi dela azaldu du: 1) Ingurumen-zaintza lehiakorra; 2) Ad-hoc ikerketak; 3) Ardazte-taldea; 4) Berrikuntza-bonoak. Ihoberen bidez garatzen da ingurumen-zaintza lehiakorra, bai eta Europako Batzordearen "Ekonomia zirkularra, materialen efizientzia eta produktu-politika" foroan egonez eta estatuko autonomia-erkidegoak Europako Batzordearen Ingurumen Kontseiluan kokatzeko modua koordinatuz.

Azkenik, Basque Ecodesign HUBaren inguruan ezagutza transferitzeko egiten diren jarduerak duten garrantzia azpimarratu du sailburuak. Hala, 16 gazte trebatu dira ekodiseinuan, eta beste 10 gazte inskribatu dira enpresaren zaintza estrategikorako jardueretan.

B) Hiri-habitata.

Sailburuak adierazi duenez, hiri-habitataren pilotaje-taldeak bi bilera egin ditu 2018an, eta, horietan, hiria osorik lehengoratzeko proiektu pilotuak jorratu dira (aurreko bileretan aurkeztu zaizkio proiektuok kontseilu honi).

Gero, sailak proiektu berritzaileetarako deialdi ireki bat zabaldu duela azaldu du. Bada, BAI+D+i Aginduaren bidez (Berriz Aztertu Auzoak I+G+b / Repensar los barrios I+D+i) egin du deialdia, eta, guztira, 650.000 euroko zenbatekoa egongo da 3 urterako. Agindu horren bidez, RIS3 Euskadi estrategia garatu nahi da, I+G+b-a ezarri hiria osorik lehengoratzeko prozesuetan. Hala, berrikuntza da enpresa-lehiakortasunaren alderdi giltzarria, Euskadi Europako erreferentea izatea nahi baita. Laguntzen programa horren 2018ko deialdian, bederatzi proiekturi eman zaie diru-laguntza.

Jarraian, nZEB ekimen estrategikoan egin diren aurrerapenak azaldu ditu sailburuak. Ekimen horren bidez, modu adimentsuan birgaitu nahi dira eraikinak, energia-kontsumo ia nulua irizpideen pean. Gaur egun, Jaurlaritzaren etxebizitza-parkean dauden eraikin batzuetan (Amurrion, Ortuellan eta Donostian) ateratako hiru erakusketa-proiektuak egite-fasean daude.

Sailburuak bere hitzartzea amaitzeko adierazi du, aurrera egin nahi dela estrategia integral eta zeharkakoago batean, Alokabide sozietate publikoak kudeatzen duen etxebizitza-parkea energia-kontsumo ia nulua xederantz mugitzeko. Horrela, 7.500 etxebizitzari eta 200 eraikini eragingo zaie, eta alokairuko eraikuntza-parke publikoa kudeatzeko eredu berria ezarriko da.

5. Ikerketa zientifikoa eta unibertsitatekoa. Cristina Uriarte.

Hezkuntzako sailburuak hartu du hitza, euskal sistema zientifikoan egin diren aurrerapenen eta zientzialari garrantzitsuenen zerrendan egin den eguneraketaren berri emateko.

A) Euskal sistema zientifikoko aurrerapenak.

Hasteko, Unibertsitate eta Enpresaren arteko 2022rako Estrategiak toki-mailan (Deia Innovation Saria) nahiz nazioarteko mailan (jarduera onenaren saria, UIIN biltzarra, Londres) jaso duen aitortza nabarmendu du sailburuak.

Gero, estrategia horren lau jarduketa-eremuetan egin diren aurrerapenak aurkeztu ditu: 1) 4Gune klusterra: Gaitasun Ikertzaileen Mapa sortu du, Cocreation Hubs lankidetzak garatu ditu, eta 4gune.eus weba sortu du; 2) Prestakuntza duala: gradu eta masterreko 25 titulaziori aipamen duala aitortu zaie; 3) Enpresa + Unibertsitatea AIC – Open University ereduaren lehenengo ikasgela abiatu da, eta 4) Ezagutza-poloak sendotu dira itsas energietan, lurralde jasangarri eta osasungarrietan, osasunaren zientzia eta teknologietan, 4.0 industrian, Data Science eta eraldaketa digitalean eta material berrietan.

Ondoren, bikaintasuneko ikerketan egindako aurrerapenen berri eman du: 1) Ikerbasque eta BERCak Ikerbasqueren Plan Estrategikoaren garapenarekin, Basque Research Fellows deialdi berria egin da, Bihar gunea sortu da eta transferentzia-bulegoak jarri dira BC3, BCBL eta BCAM BERCetan; 2) Superkonputazioa: superkonputazio-zentroko ekipoak eguneratu eta areagotu dira, eta Iris eta I2Basque sareen hedapena hobetu da, eta 3) ESS-Neutronica: hala nola, ESS Lund ezpalazio-iturri europarraren kontseiluan parte hartu du, eta ildo espezifikokoak ezarri ditu Hezkuntza Sailaren doktoratu aurreko eta osteko deialdietan eta Ikerbasqueren Research Professor eta Fellow ad-hoc deialdietan.

Azkenik, Unibertsitate Sistemaren 2019-2022ko Planean egin diren aurrerapenak azaldu ditu, zeinak urtarrilean onartuko diren. Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Unibertsitate Sistemaren baliabideetan bermatutako ikuspegi estrategikorantz egin du aurrera Unibertsitate Plan berriak.

B) Euskal sistema zientifikoko pertsonarik esanguratsuenen zerrenda eguneratu da.

Sailburuak gogoratu duenez, 2015ean argitaratu zen aurreneko aldiz euskal sistema zientifikoko ikertzaile garrantzitsuenen zerrenda. Bada, zerrenda hori nola eguneratu den azaldu du bere hitzartzean. Orain, 61 pertsona osatzen dute zerrenda, eta laster jarriko da jendaurrean. Horretarako, berrikusitako irizpide batzuk erabili dira, zeintzuek betekizun hau duten abiapuntu gisa: ikertzaile doktoreak izatea, ZTBESaren zentro batean denbora osoko lanaldia dutenak. Eremu

zientifikoko ikertzaile garrantzitsuenak hautatzeko lau irizpide espezifiko gaineratu zaizkie oinarritzko irizpide horiei: 1) Nazioarteko ospe zientifikoa edukitzea; 2) Bikaintasuneko ikerketa-zentroetan zuzendaritza zientifikoa egotea eta ikerketa nagusia zuzentzea; 3) ERC (European Research Council) laguntza europarrak lortzea eta 4) Bi deialditan gutxienez A+ ebaluazioa eskuratu duten eta unibertsitate-ikerketan dabilzan talde finkatuak gidatzea.

6.- ZTBPa-ren hedapenaren amaiera. 2019-2020rako aurreikuspena eta aurrekontu-agertokiak.

ZTBPa amaitzeko 4. fasean jorratu behar diren erronka nagusiak zerrendatu ditu Jesús Peñak (2019aren eta 2020aren artean garatuko da azken fase hori). 1) I+G proiektu gidariak abiaraztea berriro, enpresen parte-hartzearekin; 2) Merkaturako hurbiltasuna eta berrikuntza indartzea ETE-etan; 3) Bikaintasuneko oinarritzko ikerketa sendotzea. 4) Ikerketa aplikatua sustatzea suspertzen ari diren eremuetan; 5) STEAM talentua eta bokazio berriak bultzatzea; 6) Pilotaje-taldeek ekimen estrategikoak dinamizatzea eta 7) Berrikuntzaren arloan sentsibilizatzea gizartea eta enpresak, eta berrikuntza hori hedatzea.

Ondoren, Jaurlaritzak 2019an I+G+b-a sustatzeko egin duen aurrekontu-proiektua banakatu du. Eusko Legebiltzarrari aurkeztu zaio proiektua dagoeneko, eta 461,5 milioi eurokoa da (2018an baino % 6,5 gehiago). Adierazi duenez, proiektua onesten ez bada, legegintzaldian partida horien aurrekontua urterik urte % 5 areagotzeko hartutako konpromisoa betetzeko asmoa dauka Jaurlaritzak.

ZTBPa 2014-2020ko aldiaren betearazteko aurreikusi diren agertokiak deskribatuz amaitu du Jesús Peñak bere hitzartzea. Aldi horretan, guztizko inbertsio publiko-pribatuak 10.000 milioi euroak gaitutuko ditu; hau da, hasierako aurreikuspenen % 90 beteko da (% 10,7 Eusko Jaurlaritzak eta % 82 enpresek). Balioesten denez, proiektu horiekin KPlaren % 2 baino zertxobait gehiago gastatuko da I+Gn 2020an.

7. Esku-hartzeak eta galderak.

Ondoren, egindako azalpenen gainean galderak, esku-hartzeak eta iruzkinak egiteko txanda ireki du Lehendakariak, partekatutako ondorioen laburpenari ekin baino lehen.

Hala, Nekane Ballueta EHUko errektoreak hartu du hitza, eta emakumeak sistema zientifiko-teknologikoan txertatzeko orduan anbiziotsuagoak izateko beharra azpimarratu du. Fernando Cossío Ikerbasqueko presidentek premia hori berretsi du, eta bere Plan Estrategikoaren indar-idea batek Euskadiko sistema zientifikora (batez ere, karrera zientifikoaren maila altuenetara) emakume ikertzaile gehiago sartzea jasotzen duela azaldu du. Horri buruz adierazi duenez, Ikerbasquera sartzen diren ikertzaileen % 40 emakumeak izatea aurreikusi dela, Plan horretan ezarritako erronken arabera.

Bestalde, IK4ko presidenteorde Jesús M^a Iriondok adierazi du oso garrantzitsua dela ETE-etan berrikuntza ez-teknologikoari babes handiagoa ematea, bai antolaketari eta kudeaketari dagokienez, bai, eta, batez ere, merkataritzari eta marketinari dagokienez. Gainerako kontseilukideek ere bat egin dute kezka horrekin. Zentzu horretan, ZTBPa amaitzeko 4. fasean ETE-etan berrikuntza ez-teknologikoa bultzatzeko neurri laguntzaileari eutsiko zaiola adierazi du Arantxa Tapia sailburuak,

bereziki euskal enpresa txikiei zuzenduriko programa berri bat abiatuko baita 2019an, berrikuntza ez-teknologikoa jorratzekoa: Hazinnova programa.

8. Laburpena eta ondorioak

Balorazioak egin ondoren, Lehendakariak bileraren garapenaren laburpena egin du:

“2014ko abenduan, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Plana onartu genuen, 2020. urtera begira. Arlo publiko eta pribatuaren arteko inbertsioa 2014-2020 aldirako 11.100 milioi eurotik gorakoa izango zela adierazi genuen, emaitzak lortzea baitzen inbertsioon xedea.

Plana hedatzeko bosgarren urtera iritsita, eta Plana amaitzeko azken faseari ekin aurretik, lehenengo etaparen gaineko balantzea positiboa dela esan dezakegu. RIS3 Euskadi estrategiaren hedapena osatu dugu, eta aurrekontuaren % 90 baino gehiago betearazi. Euskadik berrikuntza handiko eskualde eta herrialdeen artean egoten jarraitzen du, eta ikerketan eta garapenean egiten diren inbertsio publiko-pribatuen hazkuntzan joera-aldaketa gertatu dela baieztatu daiteke.

Halaber, ZTBParent tresnak eta programak, kontseilu honek onetsitako neurri gehigarriekin batera, beren uzta ematen ari dira enpresaren, teknologiaren eta zientziaren alorretan.

- 36.000 milioi euro lortu dira enpresen produktu berrien fakturazioagatik.
- 441 milioi euro jaso dira H2020 programa europarraren esparruan.
- 22.490 argitalpen zientifiko indexatu egin dira, eta horien % 55 goreneko kalitateko aldizkari zientifikoetan (Q1) izan dira.
- Europako EPO patenteen 808 eskaera aurkeztu dira.

Bide onean goaz, baina ez gaitzke autokonplazentzia-egoeran egon, KPIaren gainean egiten den I+G inbertsio-ratioa Europakoaren batez bestekoaren azpitik baitago oraindik (batez ere, enpresa-sektoreari dagokionean). Gainera, ahulgunea dago oraindik ere berrikuntza teknologikoaren nahiz ez-teknologikoaren arloan; bereziki, ETE-etan.

Euskadik eskualde eta herrialde aitzindariekin lerrokatzeko xedeari heltzen dio oraindik ere; hortaz, ahalegin handiagoa egin behar dugu talentuan, ikerketan eta berrikuntzan egiten diren inbertsioetan. Horretarako, bada, kontseilu honen azken bileran erabakitako hiru neurri indargarri handiei heldu behar diegu:

- Merkatutik hurbilago dagoen enpresa-arloko I+G babesteko programak indartzea
- Euskal enpresa txiki eta ertainetan berrikuntza teknologikoa eta ez-teknologikoa sustatzen duten proiektuak babestea
- Enpresetan ikertzaileak sartzeko bidea bizkortzea.

Oinarri horiek hartuta, Lehendakariak, bileraren laburpen gisa, honako iruzkin hauek aurkeztu dizkio kontseiluari, kontuan har ditzan:

Lehenengoa: Positiboki baloratzea ZTBP 2020 hedatzeko hirugarren faseak izan duen garapena 2018. urtean. Euskadik berrikuntza handiko eskualde eta herrialdeen artean egoten jarraitzen du, eta ikerketan eta garapenean egiten diren inbertsio publiko-pribatuen hazkuntzan joera-aldaketa gertatu dela baieztatu daiteke.

Bigarrena: RIS3 Euskadi espezializazio-estrategia adimenduna hedatuz lortu diren emaitzetaranzko norabidea eta efizientiaren hobekuntza azpimarratzea, RIS3 estrategia uzta positiboa ematen ari baita enpresaren, zientziaren eta teknologiaren alorretan.

Hirugarrena: Erronka gehigarri hauetara bideratzea Berrikuntzarako Funtsaren baliabideak, ZTBParren hedapena amaitzeko 4. fasean:

1. I+G proiektu gidariak abiaraztea berriro, enpresen parte-hartzearekin
2. Merkaturako hurbiltasuna eta berrikuntza indartzea ETE-etan
3. Bikaintasuneko oinarrizko ikerketa sendotzea
4. Ikerketa aplikatua sustatzea suspertzen ari diren eremuetan
5. STEAM talentua eta bokazio berriak bultzatzea
6. Pilotaje-taldeek ekimen estrategikoak dinamizatzea
7. Berrikuntzaren arloan sentsibilizatzea euskal gizartea eta enpresak, eta berrikuntza hori hedatzea.

Laugarrena: Enpresei dei egitea, eta dei horri eustea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteengan babes hartuta, bikoiztu egin dezaten ikerketaren eta berrikuntzaren gaineko apustua, beren lehiakortasuna eta tokiko nahiz nazioarteko posizioa hobetze aldera.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 18:30ean amaitu da.

Jesús Peña Martínez

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA ETA LEHENDAKARIAREN ORDEZKARIA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA PLANERAKO